



NAFARROATIK EUSKADIRA. 100 URTE EUSKAL NAZIONALISMOAREN HISTORIAN BARRENA

Josu Chueca

SARRERA

Zorionez edo zoritxarrez, Giza zientzietan ere, gertaeren urtemugek gero eta eragin haundiagoa dute. Subentzioaren kulturean sartu ginenez geroztik, edozein mendeurren, 25. urteurren, edo zilarrezko urtemuga aitzaki borobila bilakatzen ari zaigu erakusketa, hitzaldi sorta edo libururen bat karrikartzeko. Gertu ditugu arras, 1992.ko urtean, Amerikako aurkikundearen 5. mendeurrena zela medio, plazaratu zituzten maila askotako ospakizun eta inizatibak. Haietatik, bederen, bi ondorio atera ditzakegu:

Bata, Atlantikoz bertzaldeko lurren aurkikundeak ireiki zuen prozesu historikoaz agertu zen ikuspuntuaren heterogeneitatea. Izan ere, sektore batzuek, aurkikunde eta kulturizazio kontzeptuen pean, aurrerapen ideia zabaltzen zuten bitartean, bertze batzuek, hitz eder horien atzean izkutatzen ziren akulturizazio eta konkistaren eremu errepresiboak salatu zituzten.

Bertzea, urtemuga baten inguruan egituratzen diren aktibitateek duten atarramendu makala. Dirudienez, zenbaki borobilek daukaten esoterismo eta magnetismoa desagertzen diren heinean, gaiarekiko arreta bukatzen da. Ospakizunen unea urrunduz doan neurrian, Amerikako gaietaz osatu zen ikerlari, kazetari eta artikulugile multzo oparoak indarra galdu du.

Antzeko zerbait suerta daiteke, aurtengoan, Eusko Alderdi Jeltzaleak burutzen duen mendeurrena dela eta. Alde batetik, beldur gaude, gaur egungo egoera politikoak ez ote dituen gehiegi baldintzatuko, historiagileok aztertu nahi genituzken gaiak. Bertzetik, mendeurrenaren aitzakiaz, ikerlari eta artikulugile aunitz, Eusko Alderdi Jeltzalearen iraganara hurbildu daitezken arren, ahuntzaren gauerdiko eztula litzateke, 1995.ko gauzaharrenekin batera, euskal nazionalismoaren historiari buruzko grina desagertuko balitz.

Nafarroa mailan, egoera orokor honek bere bereiztasunak dituelakoan gaituzue. Ziur aski, lurralde honetan, ez da gauzatuko ikerlan uholde bat, euskal nazionalismoaren inguruan dagoen guztia bertako agente politiko zein kulturalentzat afera tabua delako. Bertze aldetik, Euskal Elkarte Autonomiko eta Nafarroako komunitatearen arteko harresi politiko-administratiboak bai hemengo baita gainontzeko euskal lurraldeetako ikerlariengan ere, gero eta ondorio nabarmenagoak dituelako, Euskadiko ekialdea banaturik edo zokoraturik utziz.

Hau dela eta, aurreritzi eta muga guztien gainetik, egoki oso iruditu zaigu Eusko Alderdi Jeltzalearen sorburutik 100 urte betetzen direlarik, lurralde honetan Euskal nazionalismoak eman dituen urratsen inguruan puntu historiko batzuk gure orrialdetara ekartzea.

Euskal nazionalismoak Nafarroan izan duen garapena eta ezaugarriak kontutan hartuz, hiru arotan sailka dezakegu bere historia. Barneko faktoreek zein kanpokoek baldintzatzen dute sailkapen hau. Euskal abertzaletasunaren bilakaera politikoa ezezik, bere inguruan dagoen gizartearen jokabide politikoak ere nahitanahiezkoak ditugu hari historikoari jarraitzeko. Hau kontutan hartuz, honako aroak antzeman ditzakegu:

- A) Eusko Alderdi Jeltzalearen sorrera eta lehen hazkundera. Aldi honetako mugak, lehen elkarte jeltzaleen eratzea eta Primo de Riveraren Diktaduraren amaiera direlarik.
- B) Bigarren Errepublikako bezperetatik, 1936.ko gerrateraino doazen bitarteko urteak. Hau da, EAJ eta bere xede politikoaren herriratze prozesurik sakonena.
- C) Diktadura frankista eta Trantsizio politikoak dakarten egoera politiko bereziak, Nazionalismoaren aniztasun politikoarekin.

Epe historiko hauetara hurbildu nahieran, 1994.ko ekainean Euskal Herriko Unibertsitatean, aurkeztu genuen *El Nacionalismo Vasco en Navarra durante la II República* delako tesiaz baliatu gara. Ondorengo orrialdetan laburbilduta azaltzen diren zenbait ondorio ikerlan honen emaitzak dira. Hauekin batera, ehun urtetako ibilbide historikoa jorratzeko, aipatutako bertze bi aroetaz zertzelada batzuk ere zirriborratu ditugu. Euskal nazionalismoaren mendeurrenak ekarriko dituen ikerketen artean, datozen orrialdeek Nafarroatik eginiko ikuspegi historiko bat osatzea lortuko balute, ontzat emango nituzke.

1910-1930 AITZINDARIEN AROA

Jakina denez, Bizkaiko salbuespena kenduz, gainontzeko euskal lurraldeetan Euskal Nazionalismoa gure gizaldiko lehen urtetako korrante politikoa dugu. Aintzineko indar politikoaren sistemari kimu berri batzuk sortu zitzaizkion XX. mendearekin batera. Errepublikarrei, ezkerretik, sozialistak gehitu zitzaizkien bitartean, eskuindarren esparruan, berriz, euskal nazionalistak plazaratu ziren indar haundiz, 1907.z geroztik zenbait hiritan.

Nafarroa mailan, ezagunak ditugu EAJ-k eman zituen lehen urratsak erakundetze mailan. Lurralde honetan Sabino Aranarekin Estanislao Aranzadi, Daniel Irujo eta Hermilio Olorizek izandako harremanek ez zuten ondorio politikorik izan 1904. ra arte. Izan ere urte hartan, Bilboko "Juventud Vasca"ko egoitzean, egindako Euskadi osoko ordezkarien bilkuran, Francisco Oyarzun izendatu zuten Nafarroako nazionalisten arduraduna. Dena den Nafarroan izan zitezkeen EAJren jarraitzaileek 1911.ra arte ez zuten zuzendaritza politikorik gorpuztu. Urte honetako azken hilabetean hautatu bait zuten lehen Napar Buru Batzarra, Estanislao Aranzadik lehendakaritza zuelarik.

Nafarroako gobernu zibileko elkartearen erregistroa eta "Napartarra" aldizkariari esker, tokian tokiko elkarte jeltokideen hedaduraz jabetu gaitezke. Iturri hauen arabera, erran daiteke Primo de Riveraren Diktaduraren aurreko aroan garapena motela eta mugatua izan zela. 1916.ean, errate baterako, Zornotzan, Comución Nacionalista Vasca delakoak bere asanblada nazionala burutu zuenean, Nafarroan 11 uri batzar zeuden egituraturik.

Honez geroztik, zenbait batzoki ireiki ba zituzten ere, uri batzar hauek zeuden tokietan izan zen. Dena dela, hedadura mugatu honek ez zuen oztopatu, gune garrantzitsuenetan, Iruñea, Tafalla, Baztan, Gares edo Lizarrako kasuetan alegia, orduko jeltokideek iharduera politiko zabala aurrera eramatea.

Multzo nazionalistak biltzen ziren leku hauetan, lehen euskarria, "Euskal Etxea" edo Batzokiren bat martxan jartzea izan zen. 1910.z geroztik aitzindaria izan zen Iruñeko "Centro Vasco" delakoaren ereduari ekinez, ondorengo urteetan eratu ziren batzokien baitan, euskal abertzaleek makina bat aktibitate garatu zituzten. Aipatutako elkarteak, bilgune izateaz gain, antzerki eta folklore taldeak, hitzaldiak, euskerazko klaseak eta horrelako ekintzetako arragoa bihurtu ziren.

Hauteskundearen bitartez gorpuzten zen erronka politikoari ere, arras goiz, eutsi zioten jeltokide nafarrek. Izan ere, 1911.ko azaroan, Iruñeko udal hauteskundeak zirela medio, estraineiko aldiz, EAJren zenbait jarraitzaile aurkeztu ziren lehia horretara. 1917. arte zinegotzirik lortu ez zuten arren, orduetik aurrera, 1923.ko Diktadura iritsi bitartean, gero eta eragin haundiagoa izan zuten Iruñea eta beste udal batzuetan ordezkari nazionalistek.

Francisco Lorda, Santiago Cunchillos eta Felix Garcia Larrachek lortu zituzten 1917.ko abenduan lehen udal eserlekuak. Kopuru hau, hurrengo hauteskundeetan, emendatuz joan zen eta 1922.rako zortzi zinegotzirekin, nazionalistek, Jaimisten atzetik bigarren talde politikoa osatzen zuten hiriburu nafarrean. Honez gain, bertze herri batzuetan, hala nola, Agoitz, Zudaire, Gares, Lizarra etab. ohizkoak ziren korrante politikoei jeltokideen ordezkaritza gehitu zitzaien.

Dena den, udal talderik esanguratsuen, Iruñekoa dugu. Hiriburuak duen garrantzia haintzakotzat hartzeaz gain, alderdi nazionalistak zuen zinegotzi taldea, zama haundiko militante zein profesionalen osaturik zegoelako. Beste batzuen artean, Ramon Unzu edo José Lampreabe bezalako enpresa gizonekin batera, Santiago Cunchillos, Diputazioaren idazkari ohia, Leoncio Urabayen geografia irakasle eta saiolari ospetsua, Serapio Esparza, Iruñeko harresiak bota ondorengo hirigintzako lan eta proiektuetan buru belarri aritu zen arkitektoa, Javier Ciga margolari saritua, eta zinegotzi jeltkideen artean, denbora gehien eta kemen haundienarekin aritu zen Francisco Lorda Yoldi.

Iruñeko udalera sartzearekin batera, 1918.ean Nafarroako jeltkideek lortu zuten Manuel Aranzadi Madrilgo gorteetara bidaltzea. 1923.ra arte eutsi zion Aranzadik eserleku honi, talde jeltkidearen bozeramailea izanik. Hau zela eta, aukera izan zuen, estraineko aldiz, Madrilgo parlamentuan euskal nazionalismoaren helburu politikoak azaltzeko, sarritan eztabaida sutsu bezain adierazgarriak burutuz. Gogoratzekoak dira erabat, errate baterako, Victor Praderaren aurkako hitzartzeak. Parlamentari nafar honekin izandako lehietan, Manuel Aranzadik frogatu zuen aise, Nafarroan bertze aukera politiko berri bat sustraiturik zegoela, euskal nazionalismoarena, hain zuzen ere. Karlista eta integristek zuten diskurtsu foruzale antzueren aurrean, jeltkideek iraganeko gertaeretatik abiatuz, foruen berreskurape-na erreibindikatzen zuten, euskal nortasuna babesteko asmoz.

Primo de Riveraren Diktadura iritsi baino lehen, Nafarroako jeltzaleek izan zuten hirugarren euskarri instituzionala, bertako diputazioan, Manuel Irujori esker, erdietsi zuten. Lizarraldean hasitako lan politikoari Nafarroa osoko proiektzioa eman zion Irujotarren zaharrenak 1920.tik aurrera, urte horretan sartu baitzen Nafar diputaziora. Primoren Diktadura iritsi bitartean, baita 1930-1931.ko trantsizioko hilabeteotan ere, Irujok bere merinaldeko arazoetaz arduratzeaz gain, besteen proiektu eta eginkizunak ere, oso kontutan hartu zituen, berak sustengatzen zituen ideia politikoei, egundoko ohiartzuna emanez.

Aipatu beharra dago, aro honetan, komunikabideek izan zuten errola, esparru nazionalistan, baita Nafarrokoan ere. Izan ere, lehen gune jeltkide iruñarra eratu zen unetik, plazaratu zuten bere lehen kazeta "Napartarra" izenarekin, 1911.ko otsailaz geroztik, alegia. Orduko nazionalistek XIX. mendeari begiratzen zioten astekari honen ardatz ideologikoak sustengatzeko, ildo nagusia, 1839.ko legea eta bere ondorengoak bertan behera uztea izan zelarik. Euskal lurralde guztiei zegozkien eskubide eta erakundeak itzularaztea aldarrikatzen zuten, zehaztasun haundiagorik gabe. Dena den, 1917.ko udaz geroztik, diputazioek baita zenbait udalek ere, euskal autonomiaren aldeko proiektuak plazaratu zituztenean, bat egin zuten formulazio berri hauek bultzatzeko.

Arana eta lehen nazionalismoaren oinarri ezagunenak zabaltzeaz gain, Nafarroako erakunde, instituzio, historia eta iraganaz baliatu ziren nafarzaletasuna-euskaltzaletasuna sustraiaitzeko asmoz. Prentsa oso ideologizatu baten aurrean gaude "Napartarra"ren kasuan. Alde ideologikoak lehentasuna hartzen ziolako aspektu informatiboari. Hau nagusitzen zenean, alderdiaren aktibitateen berri emateko zen.

Euskal nazionalismoaren hasieran, Bizkaian, suertatu zen bezala, Iruñeko kazeta jeltkidean, karlismoa ere izan zen, idazle nazionalistek gehien erasotu zuten esparru politikoa.

Mugimendu horren sasiforzaletasunean zetzan abertzaleek kaleratutako kritikarik ohizkoena. Hala eta guztiz ere, urteak pasa eta gero, bilakaera bat antzematen da. Nazionalismoa hedatzen den heinean, bertze sektore kontserbadoreak erasotzen hasi bait ziren korrante berria eta "Napartarra" ere erantzuten saiatu zen. "Diario de Navarra"ren pean ezkututzen ziren indar eskuindarrak bihurtu ziren aldizkari jelkidearen arerio latzenak. Karlismoaren baitan, 1918.z geroztik, gero eta garrantzi haundiagoa hartu zuen arazo foru-autonomistaren aurrean jarrera desberdinak sumatzen ziren bitartean, "Diario de Navarra"k defenditu zuen abertzaleen aurka, 1841.ko legeak sustraitzen zuen egoera.

Aipatzekoa da ere bai, "Napartarra"k euskerari eman zion garrantzia. Hizkuntza defenditu zuten, behin eta berriro, idazki aunitzetan. Baina, ohizko defentsa teorikoaren marra gaindituz, artikulua eta kolaborazio ugaritan, erabili ohi zuten, neurri altu eta oso duin batetan. Euskeraren inguruan, orduan, pilpilean zeuden eztabaidak isladatzeaz gain, tresna informatibo eta politiko bezala landu zuen "Larreko" aitzindaria zuen idazle multzo jori batek.

Komunikabide mailan ere, "Napartarra" desagertu ondoren, 1923.tik 1936.ko gerratea hasi bitartean, "La Voz de Navarra" egunkaria argitaratu zuten bertako abertzaleek. Bizkaiko "Euzkadi" sortu zenetik, hamar urte igaro eta gero, bera izan zen nazionalismoaren bigarren egunkaria. Saio hau ez zen bide errazakoa. Izan ere, 1920.ean, orduko buruzagiek batzorde berezi bat eratu zuten egunkaria kaleratzeko beharrezkoak ziren bitarte guztiak eskuratzeko. Hiru urte igaro behar zuten amesturiko komunikabide hori errealitate bihurtzeko.

"La Voz de Navarra" sortu zen abagadunea, nahiko itxaropentsua zen euskal nazionalismoarentzat, instituzio mailan, gero eta indar haundiagoa zuelako. Beste aldetik, 1921.z geroztik, martxan zegoen "Alianza Foral" delakoaren bitartez, nazionalista nafarrek posible antzematen zuten, zenbait sektore tradizionalista bereganatzea, edo haiekin, politika foruzale bateratu bat aurrera eramatea. Ez da harritzekoa beraz, egunkari honen ardatz ideologikoak, esparru hauetan barrena mugitzea.

"La Voz de Navarra"k sei hilabete eskas kalean zeramalarik, Primo de Rivera generalak eskubide konstituzional eta demokratikoak bertan behera utzi zituen Diktadura ezarriz. Egoera berezi honek, ziur aski indartu egin zuen egunkari honek erabiltzen zuen mezu eta doinu foruzalea. Bere eritzi politiko-ideologikoak, eta izan zituen zuzendari desberdin eta kolaboratzaileak ikusita, erran dezakegu euskal nazionalismoak Nafarroan foruzaletasun eta nafarzaletasunean oinarritu nahi zuela bere eginkizun politikoa.

Jokabide hau ez zela batere erraza, egunkariak bizi izan zituen zuzendarien etengabeko aldaketek, frogatzen dute. Dena den, euskal nazionalismoaren biguntze doktrinalak, nafar foruzaletasuna zela eta, posible egin zuen, ziur aski, Diktadura osoan zehar, komunikabide honek irautea.

II. ERREPUBLIKAKO URTETAKO GARAPENA.

Bigarren Errepublikak indartu egin zituen mugimendu politikoen artean, euskal nazionalismorena dugu. Nafarroan ere, korrante honek bere jokabide eta aukera politikoak herriratu zituen, aro hori iritsi baino lehen inoiz erdietsitako garapena lortuz. Masaen mugimendu bati

dagokion maila gorpuztu ez zuen arren, gizarte nafarrean lortutako errotzea arras nabarmena izan zen. Alderdi bezala EAJ, bere lehen aroetako guneak gaindituz herri askotara iritsi zen.

Hala ere, Nafarroan barrena emandako hedadura hau ez zen batere orekatua izan. Nafarroa euskal nazionalismoaren lurralderik ahulena ba zen ere, bertako EAJ-k, Erribera, beste nekazal eremu batzuk, ekialdeko Pirineotako haranak, baita eskualde euskaldun dauden zenbait herri ere, esparru antzuak izan zituen bere erakundea egituratze tenorean.

Eusko Alderdi Jeltzalea, estrategia foruzale eta euskaltzale baten bitartez, alderdi tradizionalista zein eskuindarretan zeuden sektoreak eskuratzen saiatu bazen ere, ez zuen lortu bertze lurraldeetan eratu zuen gehiengoko alderdi edota alternatiba politiko sendorik. Esparru kulturaletan aritzen zen euskaltzaletasuna, EAJtik kanpo zeuden zenbait eremutara iritsi ba zen ere, ez zen nahikoa izan mugimendu abertzaleri ekarpen gizapolitikoa emateko.

Nafarroan, sektore eskuindarrek, biziki laister, gainditu zuten monarkia borbondarraren porrotak sortu zuen krisi politikoa. Tradizionalistek eta integristek burututako birbateratasuna eta sektore eskuindar guztien batasunak, nazionalistek izan zezaketen hazkundera, oztopatu zuten.

Bizkaia eta Gipuzkoako bazkide eta militanteren kopuruarekin konparatuz, Nafarroakoa askoz txikiagoa izanik, Eusko Alderdi Jeltzaleak eskualde honetan, martxan jarritako erakundetze egitura bertze lurraldekoekin pareka daiteke. Alderdi nazionalista honek sortutako erakunde maila guztiak, hots, tokian tokiko elkarteetatik, Napar Buru Batzarreraino, eta erkidego sektorialak, hala nola Emakume Abertzale Batza, Euzko Langileen Elkartasuna, etab. gauzatu zituzten jeltzale nafarrek. Dena den, zenbait erakunde mota, EGI edo "Mendi-goizaleak" bezalakoek, Iruñean bakarrik lortu zuten, nolabaiteko iraunkortasunarekin egituratzea.

Tokian tokiko elkarteetan garapenak maila hagitz nabarmena lortu bazuen ere, 108 uri batzar azaltzen bait ziren 1933.ko bukaeran egindako txosten batetan, ez dirudi guztiek eragin politiko berdintsurik izan zutenik. Izan ere, Errepublikako azken biurtekoan, buruturiko alderdiaren biltzarretan, azaltzen diren elkarteetan zerrendak, kontutan hartuz, aunitz ziren sekulan agertzen ez zirenak, hau da, bizitza politiko nahiko motela zeramatenak. Estatutoetan azaltzen ez ziren Batzokiak edo Euskal Etxeak iharduera politikoaren sustatzaileak ziren, ez bakarrik kokaturik zeuden herrietan, baita beraien inguruetan ere.

Emakume Abertzale Batza eta Solidaridad de Trabajadores Vascos delakoek hedadura mugatu samarra izan zuten. Ia ia salbuespenik gabe, alderdi jeltzaleak zituen gune garrantzitsuenetan finkatu bait ziren, bere babesa edukita. Buruzagi eta militante amankomunak zirela medio, erakunde desberdinen arteko harremanak oso estuak ziren. Faktore honek, eta ziur aski, jeltzale nafarrek zeukaten ahultasun kontzientziak Alderdiarekiko jokabide taldekoi eta jarraitzailea indartu zuen Emakume Abertzale Batzan baita STVrengan ere.

Komunikabideei dagokienez, EAJren eragina, teorikoki bederen, indartsua zen oso. Errepublika hondatu arte, "La Voz de Navarra" egunkaria eta "Amayur" astekaria, karrikaratu zituen alderdi abertzaleak. "Trabajadores" astekari sozialista kenduta, Erregimen

errepublikarraren aro osoan, ez zen bertze korronteko aldizkaririk izan, "Diario de Navarra" eta "El Pensamiento Navarro" eskuindarrek zuten hegemoniari aurre egiteko. "La Voz de Navarra" eta "Amayur" nolabaiteko osogarritasuna zuten. Egunkaria, hizkera foruzaleren pean bere abertzaletasuna biguntzen zuen bitartean, "Amayur"ek ortodoxia jeltzalea, argi eta garbi, isladatzen zuen.

Giza osaketari dagokionez, klasearteko alderdia dugu Eusko Alderdi Jeltzalea. Beste alderdietan gertatzen zen legez, buruzagi gehienak, burgesia txikiko partaideak ziren baina beheko militanteak, tokian tokiko, giza sektore guztiak ordezkatzeko zituzten.

Nafarroan ez zen gauzatu Bizkaia eta Gipuzkoan egituratu zen alderdi nazionalista berria, ANVrena hain zuten ere. 1921.ean gertatu zen bezala, 1930.ko eszizioan, Nafarroako jeltkideek bat egin zuten alderdi historikoarekin, sortu berria zen ANV-ri bizkarra emanez. 1933.ean Nafarroratu zenean, alderdi honek taldexkaren maila ez zuen gainditu, bere iharduera, ia ia, hutsaren hurrengoa izan zelarik. Nafarroako Alderdi jeltzalean, "Amayur"ko gehiegikeri propagandistikoak salbu, jokabide abertzalea ez zen oso erradikala izan. Nazionalismoaren baitan, suertatu ziren haustura edo kanporaketak, ez zuten kolokan jarri ideologia jeltkidea, taktika zein arazo organizatiboen ondorioak izan zirelarik.

Nazionalismo ezkertiarren ezak, alderdi langile eta ezkertiarrekin izandako harremanak zaildu egin zituen. ANV-k Bizkaian edo Gipuzkoan jokatu zuen errola, hots, euskal nazionalismo eta langileria ordezkatzeko zuten alderdien arteko zubia, aipatutako erakunde horren ahulezia zela eta, Nafarroan ez zen gauzatu. Honen ondorioz, abertzaletasuna erreakzionaritzat jo zuten sektore ezkertiarrek.

Hala eta guztiz ere, nazionalismo jeltkidearen baitan, zenbait joerek bilakaera ideologiko eta politikoa adierazten dute. 1936.ko otsailaz geroztik, Estatutuaren aldeko erreibindikazioa berriro plazaratu zelarik, EAJ-k bere diskurtsua gaurkotu egin zuen, bigarren Errepublikako esparru konstituzionalean oinarrituz eta programa estatuzalea ezkertiarren eskutan, Frente Popular delakoaren zuzendaritza pean alegia, jarritz.

Era berean, STV-k izan zuen bilakaera, gainontzeko elkarte sindikalak bultzatzen zituzten mobilizazioetan parte hartuz, sektore hauen alderako norabidea isladatzen zuen heinean, oso adierazgarria izan zen. Dena den, dinamika hau lehen urratsetan zegoelarik, errotik moztu zuen 1936.ko gerrateak, EAJren inguruan zeuden sektoreengan izan zitzakeen ondorioak hipotesi mailan utziz.

Militante jeltkideek 1936-1939.ko gerratearen aurrean izandako jarrera desberdinak ere, erakunde abertzaleek bere baitan ordurako zuten aniztasun politikoaren adierazgarriak dira. Munta haundikoa da jakitea, Errepublikako legalitatea defenditu zuen jeltkiden multzo txikia eta Euskal nazionalismoaren politikaren "errepublikatzea" aldarrikatzen zutenak sektore bera osatzen zutela.

Gainontzeko euskal lurraldeetan gertatu zen bezala, lurralde nafarrean ere, EAJ-k mar-txan jarri zuen estrategia politikoaren funtsa Autonomiaren aldeko erreibindikazioa izan zen. Nafarroako bereiztasuna, 1932.ko urtarrilatik aurrera, bai eskuindarren aldetik, baita ezkertiarretik ere, asmo honek izan zuen, gero eta oposizio haundiagoan datza.

Lau lurraldetako Estatutu amankomunaren aurkaritza honetan bat egin zuten jokabide arras desberdinek. Ezkertiarrek zuten taktikeriaz gain, Eskumaren aldetik, 1841.ko legeak sustengatzen zuen Nafarroako status quo-aren defentsa, nafarzalekeriaren ildotik haizeratzen zena. Faktore eta sektore hauen batasunak bertan behera utzi zuen, Nafarroa mailan, Eusko Alderdi Jeltzaleak plazaratutako asmo autonomikoa.

1932.ko ekainaren 19.ean burututako udalen biltzarrean, izandako irregulartasunak salatu zituzten orduko agintari eta komunikabide nazionalistek, gaur egungo zenbait historiagilek ere, benetazkoak izan zirela frogatu dutelarik. Hala ere, ezkertiarrek edo Elkarte tradizionalistakoek, arazo honetaz bere oposizioari eusten zioten bitartean, Nafarroan Estatutuaren aurkako jarrera nagusituko zela antzematen zuen Eusko Alderdi Jeltzaleak. Honen ondorioz, nahiz eta aipatutako salaketak izan, ez zen gauzatu funtsezko inizatibarik, asanbladako emaitza bertan behera uzteko.

Hau erranda, argitu behar duguna da, nola Eusko Alderdi Jeltzalea bezalako elkarte bat, inolako euskarri instituzionalik gabe, eta zuen ezarrera desorekatuarekin, gauza izan zen Estatutu Vasconavarro delakoa aurrera eramateko, ia ia udalen gehiengoaren laguntza eskuratuz. Nola erdietsi zuen Errepublikako lehen urtean, Euskal autonomiaren aldeko erreibindikazio hau Nafarroako lehen maila politikora eramatea. Izan ere, hilabeteetan zehar, behin eta berriro burutu zituzten asanbladetan, EAJ-k nahi zuen Estatutuaren proiektuak sektore politiko guztien onespina jaso zuen. Azken udalen bilkuran izandako errefusa, eskuina eta ezkerraren indar politikoez zituzten ikuspuntu taktiko zein ideologiko desberdinen batuketa izan zen.

Dialektika honetan, Euskal Estatutu amankomuna bertan behera botatzeko argudioetan, Euskaltasunaren aurkakoak ez zuen garrantzirik izan. Gaur egun, zehazkiago, Frankismo eta gaur egungo autonomien Estatuaren arteko trantsizioan izandako eztabaidetan, Nafarroaren euskaltasuna baieztatzeko edo ukatzeko, 1932.ko asanblada eta bozketa, sarritan erabili izan duten arren, ozenki erran behar dugu hau ez zela auzitan zegoen arazoa ezta Estatutua errefusatzeko argudioa ere.

Ezkerrek eta eskuindarrek zituzten estrategia politikoen ondorioa da Euskal Estatutuari emandako ezezkoa. Hainbat alkatek Euskal Estatutuaren aldeko mugimendua hasi zutenetik, ezkertiarren artean jarrera oso desberdinak azaldu ziren. Nafarroako Batzorde Gidariak udalen proiektua babesten zuen bitartean, Erriberako ezkertiarrek, beraien udaletatik, baita komunikabideetatik ere, oso azkar azaldu zituzten Estatutuaren aurkako susmoak. Zenbait sektore ezkertiarrek Eusko Alderdi Jeltzalea errepublikaren talde etsaitzat jotzen zuten ezkerre ez zuten begi onez ikusten bere hegemoniaren pean eratu ahalko zen Euskadi autonomo bat.

Hau gutxi izanen balitz, 1931.ko ekainean, jeltzaleek eskuindarrekin batera hauteskundeetara aurkezteak, gehitu zituen ezkertiarrek Nazionalismoarekiko zuten mesfidantza. Beraz ez da harritzekoa, alderdi honek bultzatutako proiektuen aurka jotzea. Eskumari dagokionez, gainontzeko euskal lurraldeetan gertatu zen legez, Nafarroan ere, sektore politiko hau, Errepublikako hasieran, alkateek eragindako estatuaren aldeko mugimendua-

ren baitan laketu ziren. Baina 1932.z geroztik, Nafarroa mailan ez zuten honelako babesaren beharrik, nagusigo politiko, ia ia, erabatekoa zuten eta.

Izan ere, Gorte konstituzioegileetako hauteskundeak burutu eta gero, batzorde eragileaz landa, eskuindarrek politika egiteko tenorean nagusitu ziren esparru guztietan. Multzoko eskuindar haundi batek, 1932.ko ekainera arte, Euskal Estatutuari eutsi zion arren, talde kontserbadoreek, batez ere "Diario de Navarra"ren bitartez, politika egiten zutenek, lortu zuten eskuindarren gehiengoa erreibindikazio autonomistaren aurka jartzea.

Politika erlijiosoari dagokionez, EAJ-k bat egin zuen gainontzeko erakunde eskuindarrekin. Elizaren eskubideen defentsan eta Errepublikak, lehen biurtekoan, martxan jarri zuen politika laikozaletaren aurka azaldu zen beti. Jokabide honek ez zuen elkarrekikotasunik izan Elizaren aldetik. Institutzio honek hizkuntza eta euskal kulturari jaramonik ez egiteaz gain, oso gogor jokatu zuen bertze sektore eskuindarren alde, nazionalismoari, masa eskuindarren artean aritzeko hain preziatua izanzen zen onespen osoa ukatuz.

1936.ko gerratea lehertu baino lehen, aktibitate politikoeekin batera, oso esanguratsuak dira Nafarroako jeltkideek martxan jarritako iharduera kultural batzuk. Hala nola euskal eskolak, folklore eta antzerkiaren talde zein emakinzunak,...etab. Eusko Alderdi Jeltzaleak nolabaiteko errotzea erdietsi zuen lekuetan, ekintza hauek parte oso haundia hartu zuten, jeltkideen eguneroko praxian. Korronte jeltzaleak plazaratu zuen euskaltasunaren ereduaren morroi peto petoak ditugu Nafarroan egindako saio kultural gehienak: nekazal girokoak, baserritarrenak hain zuzen ere, Euskadi atlantiarraren folkloerari emandako lehentasuna, doi doi eskusikotasuna jo dezakeguna, euskeraren erabilpen sinbolikoa etab.

Nafarroako EAJ-k bertze lurraldeetako jeltkideen aldetik jaso zuen laguntza oso nabarmena izan zen aro errepublikarrean zehar. Maila batetan, zuzen zuzenean eta publikoki Nafarroako alderdiaren laguntzarako burutzen ziren kanpainiak "Pro Araba y Nabarra"ren antzekoak, errate baterako. Bertze batetan, Nafarroako erakunde jeltzalearekiko izan zen begirune eta arreta berezia. Honen islada izanzen lirateke laguntza ekonomikoa, jeltkide napar batzuk bertze lurraldeetako hauteskunde zerrendetan aurkeztea edo Euzkadi Buru Batzarren lehendakaritzan Jesus Doxandabaratx buruzagi nafarra paratzea.

Dinamika honek bi alde zituen. Alde batetik, positibotzat jo dezakegu, zeren laguntza honi esker, alderdiaren funtzionamendurako ziren bitarte funtsezko batzuek, errate baterako, prentsa, Napar Buru Batzarreko idazkaritza..., aro errepublikar osoan barrena iraun ahal izan zuten. Ildo beretik, Manuel Irujok diputatuaren eserlekuaz garatu zuen errola aipa daiteke. Izan ere, bera hautatua izan zen Gipuzkoako arazoetaz arduratzeaz gain, Nafarroatik zetozkion auziei ere, izugarritzko garrantzia eskeini zien bere alderdiarentzat egundoko ospea erdietsiz.

Hala ere, eta ondoriak kontutan hartuz, zalantza gehiago sortu ditzake Bizkaitik Nafarroaraten ziren talde jeltkide batzuen jokabideak. Euskadi Atlantiarraren eredueta oinarritzen ziren folklore edo kulturalezko emankizunek, euskalduntasunaren estereotipo bakar bat hedatuz, geografiko, kultural eta gizaekonomikoki, ezberdina ziren eskualde batzuetan, lortzen zutena zen "Euskalduna"rekiko ezberdintasunaren kontzientzia suspertzea.

Instituzio mailan, EAJ-k izan zuen ahulezia, oztopu haundia izan zen bere iharduera politikoarentzat. Sektore ezkertiarrek zenbait udaletan zeukaten indarra eta Batzorde gidariaz baliatu ziren bitartean, alderdi jeltzaleak, soil soilik, herri batzuetan eratu zituen zinegotzi multzo txiki batzuk. "Alkateen mugimendua"ri esker, lehen biurtekoan bere eragina biderkatu zuen alderdi nazionalistak baina Nafarrora Estatutuaren aldeko proiektutik at gelditu zenetik eta koalizio katoliko foruzalea apurtu eta gero, EAJ-k ez zuen izan inolako euskarri instituzionalik edozein ekimen politikorik aurrera eramateko.

Adierazgarria da erabat, 1934.ko udan "ardo Estatutua" zela medio, euskal udalen gatazka piztu zenean, Nafarroan izandako erantzun eskasa. 1931.ko aliatuen gabe, Nafarroako EAJ-k ezin izan zuen bultzatu sinbolismotik kanpo zegoen inolako elkartasunik.

1931-1936 bitartekoan, Nafarroako gizartean gorpuztutako polarizazioa, Erregimen errepublikaren aurkako altxamendu latza ekarri zuenak, ez zion lekuri utzi ortodoxiatik kanpo mugitzen zen Nazionalismo bezalako eskumari. Beste esparru eskuindarrekin zuen hurbiltasun ideologikoa eta lehen urte errepublikarretako zenbait iharduera politiko amankomunek, Eusko Alderdi Jeltzaleari oztopatu zioten Ezker eta Eskumaren arteko zubia burutzeko ahalmena.

Hauteskunde mailan, EAJ-k lortutako ondorioek hirugarren lekuan jartzen zuten alderdi hau. Korrante honen botuemaileek leialtasun haundiz bozketetan EAJrekiko jokatzeko zuten ezker, emaitzak beti %10 inguruan mugitzen ziren. Dena den, botoen multzo hau, lurraldez lurralde begira, oso desorekatua zegoen, zenbait lekuetan, Erronkari, Erribera, Burundán, maila minimoetara jeitsiz. Iruñaldean, EAJ egituratu zenetik, alderdi honen boto maila eta elkarte errepublikarrena elkarren aurkakoak ditugu. Antza denez, errepublikazaleek krisia pairatu zuten urteetan, EAJ-k bereganatu egin zuen beraien esparru politikoa. Alderantziz suertatu zen 1931-1936. ko abagadunean, Estatu mailan errepublikarrek zeukaten nagusigoa eta sozialistekin egindako batasunari esker, Alderdi errepublikarrek oztopatu zioten euskal nazionalismoari, ezker eta eskuinaren arteko esparruan, izan zezakeen hazkundera.

Antzeko zerbait suertatu zitzaion Euzko Langileen Elkartasuna sindikatuari. Sindikatu honek, langileriaren artean, zabaldu behar zituen ikuspuntu abertzaleek zailtasun haundiak izan zituzten, zeren Nafarroan, XX. mendeko hasieratik, izaera katoliko zeukaten bertze elkarte eta laguntza erakundeak hagitik erroturik bait zeuden. Ezkerraren aldetik, UGT, eta neurri apalago batetan CNT-k, gune industrializatuetan, zituzten indarrek ere, STV-ELAren ezarrera mugatu zuten. Sindikatu abertzalearen bazkide kopurua ikusita eta batez ere, Iruñerrikoek bere baitan zuten nagusigoa, kontutan hartuz, erran daiteke, sindikalgintzan Nazionalismoa errotze mailan zebilela II. Errepublikako garaian.

Diskurtsu politiko-ideologikoari begiraturaz, Nafarroako elkarte jeltzaleek bereganatu zituzten Euskal Nazionalismoaren xedeak. Erlijio katolikoaren aldeko militantzia sutsua ezezik, "lege zahar"ren erreibindikapena ere, behin eta berriro, aldarrikatu bait zuten. Hala ere, bere eguneroko diskurtsuan, aipatu dugun bigarren osagaiak, gainontzeko euskal lurraldeekin gonparaturaz, adierazpen mota desberdin batzuk hartu zituen. Foruen berreskurapena edota Foruzaletasun pean plazaratzen zituzten mezu autonomizaleek ez Gipuzkoan,

ez Bizkaian ezta Araban ere ez ziren ohizkoak izan. Sektore nafarzaleengana bideratua zihoan joera hau ez zen arrakastatsua izan, esparru horiek EAJra erakartzeko.

Hiztegi eta diskurtsu foruzale honen pean, taktika iraunkor bat datza. Honen arabera, Nafarroak zituen bereiztasunetatik beharrezkoa zen abiatzea, nazionalismoaraino eramango omen zuen euskaltzaletasuna pizteko asmoz. Hala eta guztiz ere, berpizten ari zen nafarza-lekeria ez zen diskurtsu honen eraginez moteldu edo jokabide nazionalistera hurbildu. Eta ziur aski, diskurtsu jelkidearen kutsu historizistak uxatu egin zituen sektore errepublikazale edota ezkertiarak.

1936.ko gerratea iritsi zelarik, Eusko Alderdi Jeltzaleak, Nafarroa mailan, ezin izan zuen alderdi bezala inolako erantzunik eman. Napar Buru Batzarraren izenean, publikoki azaldu zen jarrerak, koakzio egoera izugarria alde batera utzita, ez zuen bermatu Errepublikaren aurkako altxamendua. Arazo honetaz, edozein ikerketa, militantzia mailan egin behar delakoan gaude. Hori erranda, jakin badakigu, gerratearen aurrean azaldu ziren jarrerak oso desberdinak izan zirela, nahiz eta gehiengo bat neutraltasunaren alde egon.

Militante jelkide anitzek erreboltarien alde borrokatzea, Nafarroan altxamenduak izan zuen arrakasta eta eraginean, kokatu behar dugu nahi ta nahiez. Ikerketa zehatz baten faltan gauden auzi honetan, ditugun informazioek, matxinatuen aldeko jarrera adierazten dute jelkide nafarren aldetik, beti ere, eta hori ez da batere ñabardura makala, Nafarroako egoera berezia oso kontutan edukiz.

Euskal gudarozteaz eta Armada errepublikarraz burutu daitezkeen ikerketek jelkide nafarren partehartzearen berri gehiago hornitu diezakiguten arren, orain arte plazaratutako historiografia nazionalistean edo ahozko historian izan duten aipamen txikiak gutxiengo bat izan zela adierazten du. Dena den 1936-1937 bertatik Nafarroako zenbait jelkidek eratu zuten erresistentzia sareak aise frogatzen du Erregimen politiko berriaren aurkako jarrera.

GARAITUEKIKO ELKARTASUNATIK NAZIONALISMO BERRIRUNTZ

Erresistentzia sare hauekin erran daiteke amaitzen dela Euskal Nazionalismoaren bigarren aroa. 1936. ko udaz geroztik ezarri zen Diktadurak baldintzatu zituen talde politiko galtzaile guztien jokabide politikoak. Nafarroa mailan, oso goiz elkartasun eta erresistentzia lanari ekin zioten bertako jelkideek. Zuzendaritza politikoa desagertu zelako bakarrik preso eta zanpatuekiko elkartasun lanek hartu zuten nolabaiteko garrantzia.

Bigarren aro bat antzeman daiteke 1945.z geroztik, bigarren mundu gerratea amaitu zen unetik hain zuzen ere. Eusko Jaurlaritza berriro martxan jarri zenean Nafarroarekiko politika Consejo de Navarra delakoaren bitartez gauzatu nahi zuten. Errepublikaren instituzioek aliatuengan zituzten itxaropenak zirela medio, hurbil ikusten zuten Erregimen errepublikararen berrezarrera. Estatu espainolean, oposizioa desegiturik zegoen bitartean, atzerrian Eusko Alderdi Jeltzaleak bere asmo politikoak, Errepublikaren instituzioen baitan, kokatzen zituen.

Nafarroari dagokionez, Nafarroa Euskal Estatutoan laketzea izan zen puntu nagusiene-tako bat. Hau erdiesteko Consejo de Navarra deitutakoa bitartekari izanzen zen. Euskadiko

eratze nazionalaren prozesuaz Euskal nazionalistek zuten ikuspuntuarekin bat egiten zuelako erakunde honek, nahiz eta bere partaiden gehiengoa jelkidea ez izan, EAJ-k lagundu zuen politikoki zein ekonomikoki.

Hala ere, Kontseilu honen desagerpenak, 1950.ean, zenbait indar politiko eta aro bateko amaiera isladatu zuen. Euskal nazionalismoaren aldetik, aintzinako talde politiko eta berrien arteko transizio aroa, 1950.ko hamarkadan izan zen bitartean, Nafarroan epe hau hurrengo hamarkadan gauzatu zen batipat. Bizkaian EAJ eta EKIN taldeen arteko harreman bereziak errepikatu ziren 1960. ko lehen urteetan Iruñean alderdi nazionalista eta ETA-k bultzaturiko IRATXE erakundearen artean. Izan ere, Iratxeoak EAJ-k eskeini zien azpiegituraz baliatzen ziren bitartean, jelkideek erakunde berri honi esker, bere oinarri gizapolitikoa zabaldu nahi zuten.

Ekin eta EAJ ren kasuan gertatu zen legez, urruntasun politikoa izan zen prozesu horren ondorioa. Nazionalisten arteko haustura honen gainetik, adierazgarria da oso, azpimarratzea nola ETA-k sustengaturiko elkarteak, Iratxerena alegia, isladatzen zuen Nafarroarekiko taktika berezia. Alde batetik, bertze lurraldeetan antzeko erakunderik bultzatu ez zuelako, eta bertzetik, Iratxek kaleratutako propagandak kutsu nafarzale sutsua zekarrelako.

Dena den, 1960.ko hamarkadan, lehen aipatu dugun bezala, Eusko Alderdi Jeltzalea eta Euzko Gaztediren eragina, oraindik arras nabarmena zen, Nafarroako nazionalisten artean. Honen frogak, Iruñean burututako Aberri Eguna, 1967.ko martxokoa eta ondorengo urteetan egindako ekintzak izan daitezkelakoan gaude. 1967.ko manifestazio hura EAJren eraginaren pean egin zen. ETA egun zehatz hauetan V. asanbladaren bigarren zatia burutzen ari zelako, Aberri Egunaren deialdia eta ekintzak EAJ eta EGIri zegozkiola dirudi. Ildo beretik, hurrengo urteetan Nafarroan egin ziren aktibitate propagandistiko zein armatuak EGIkoek burutu zituzten. Gogoratzekoak dira errate baterako, Espainiaren Itzuliaren aurkako bonbak, Ikurriñaren ezarketak, pintadak, 1969.ko Aberri Egunaren gertaerak, Artajo eta Asurmendi-
ren heriotzak hain zuzen ere.

Zenbait aldizkari eta buruzagi jelkideek ekintza guzti hauek bultzatu eta lagundu zituzten arren, ekintza armatuaren dinamika, ETAtik gertuago zegoen EAJtik baino. Ez da harritzekoa beraz, hurrengo urteotan, eman zen prozesua, EGItik ETara hurbiltzea Nafarroako militante gehienak, azken erakunde honen bilakaeran parte hartuz.

Franko hil eta gero lehen Aberri Eguna, 1976.ko apirilean, Iruñean egin zelarik, nazionalismoaren baitan gauzatutako aldaketaren islada izan zen. Deialdi honen ardura, ezker muturreko alderdi eta ETaren inguruko elkarteek izan zuten. EAJ, hasieran Aberri Eguna baterakoi honen alde azaldu ba zen ere, ETA pm-k egindako Berazadiren hilketa argudiatu zuen Aberri Egunatik at gelditzeko. Iruñean egin ziren 1967 eta 1976.ko bi Aberri Eguna hauen tartean aldaketa sakon zenbait gorpuztu ziren Euskal Nazionalismoaren baitan. Hasiera bateko hegemonia jelkidea desagertua zegoen, maila dezberdineko abertzaletasun anitzak lekukoa hartu zuelarik.

Aldaketa hau ulertzeko faktore ezberdin batzuk kontutan hartu behar ditugu. Hasteko, lehen zirriborratu duguna: Praxi ekintzaile eta propagandistikoa garatzeko tenorean, ETak,

EAJ-k baino askoz kemen gahiago erakusten zuen. Izan ere, kartzelara edo atzerrira jo zuten EGiko kide anitzek, 1970.z geroztik Nazionalismoaren buruzagitza politikoa hartu zuen ETA erakundera hurbildu ziren. 1968-1969. tik aurrera, epaiketa, etengabeko estatu-egoera, eta errepresioaren zio nagusia izan zen ETaren iharduerak erakarri zuen bere lerroetara nazionalismo historikoan lehen urrats politikoak eman zituzten militante aunitz.

Burgosko epaiketarekin mundu mailako entzutea erdietsi zuen erakundeak zokoratu zuen, Nafarroan ere, Errepublikako belaunaldiko nazionalismoa. Bertze maila batez, kontraesan eta eztabaida guztiekin, gorantza zihoazen ideologia ezkertiarak, askoz hobekiago laketzen ziren ETA bezalako erakunde batetan, EAJren elkarteetan baino.

Bilakaera hori ez zen mugatu atzerrian edo kartzeletan ETaren eztabaidetan parte hartu zutenetara. ETA bera, bertze euskal lurraldeetan bezala, nahiz eta izugarritzko zartada errepresiboak pairatu, 1960.ean lortu ez zuena, 1972.z geroztik erdietsi zuen Nafarroan: Behin behineko egitura finkatu ez ezik, lehen ekintzak ere burutu zituen. Ahumada eta Sanjurjoren aurkako atentatuetatik hasita, Felipe Huarteren bahiketaraino. Erakunde honen pean, batez ere Iruñerri edo Sakana bezalako eskualdeetan, lehen langile zein kultur talde abertzaleak egituratu ziren.

Eratze nazional prozesuan hain munta haundikoa izan den esparru kulturalak ere, Franko hil baino lehenagoko urteetan, Nafarroako herri aunitzetan, indar esanguratsuko berpiztea lortu zuen. Ikastolen mugimenduaz gain, gaueskolei esker heldu askoren euskalduntze edo alfabetatzea hedatuz joan zen Nafarroan barrena. Hauekin batera, ekintza eta aktibitate euskaltzale batzuek arrakasta nahiko zabala eskuratu zuten, Frankismoaren urte luzeetan zanpaturik suertatu ziren adierazpen herrikoi eta kulturalak azaleratuz.

Bertze aldetik, Nafarroako langile mugimenduan nagusiak ziren hainbat partaideren nazional arazoarekiko aldeko jarrera aipatu behar dugu. Zentzu honetan, alderdirik indartsuena, Organizacion Revolucionaria de Trabajadores delakoa, nahiko epela izan zen arren, bertze korrante batzuk, ETatik zetozen EMK edo LCR-ETA (VI), geroxeago LKI izendatua izan zena, euskal nazionalismoaren ikuspuntuak defenditu zituzten Nafarroan errotu zirenetik.

Frankismoaren azken urteetako Euskadin bizi izandako dinamika baterakoi eta borrokariak ere erreztu zuen gainontzeko lurraldeekin komunikazio eta lotura politikoa. 1974, 1975 eta 1976.ko urteetan Nafarroako langileriak behin eta berriro bat egin zuen, greba eta mobilizazioak zirela eta, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko langileekin. Borroka amankomun hauetaz gain, erakunde politikoek ere, beraien egituretan onetsi eta bermatu zuten euskal nazioaren zentzua. Jokabide honetan, PCEn salbuespena kenduz, alderdi antifrankista ziren guztiek parte hartu zuten. PSOetik Euskadiko Karlista Alderdiraino, talde orok bultzatu eta onartu zuten politika amankomun bat Nafarroa eta bertze lurralde euskaldunentzat. Ezaguna eta harrigarria da mugimendu karlistaren baitan izandako bilakaera. 1936.ko altxamendu sustatzaileak izatetik, frankismoaren aurkako militanteak bilakatzearena alegia. Are eta gehiago, bere iraganari bizkarra emanez, trantsizioko urteetan, abertzale eta euskal-

tzaleen artean kokatu nahi izan zituzten bere iharduera eta helburu politikoak. Sektore honek Nafarroan zuen esannahi, eragin eta ahalbide legalak kontutan hartuz, bere aldaketa politikoaren prozesu orokorrako batetako faktore zein ondorietako bat izan zen.

Dena den euskal abertzaleetasuna Nazionalismo historikotik kanpo zeuden esparru giza-politikoetara iritsi ba zen ere, prozesu hori aldakorra dela, aurrera zein atzera jo dezakela, Trantsizioko ondorengo urteek nabarmendu dute. Euskadiren proiektu amankomunaren aurka zegoen talde antifrankista bakarra, PCE hain zuzen ere, 1978.ean bere jarrera aldatuz Euskadiko Alderdi Komunistara jo zuen, Nafarroa euskal proiektu nazionalaren baitan defenditzeko asmoz.

Baina alderantzizko bidea burutu zuten bertze erakunde batzuk. Errate baterako, politika abertzale suharra defenditu izan zuten buruzagi karlista zenbaitek gibelerat jo zuten, Euskaditik kanpo egituratuko zen komunitate nafar bakarraren alde aritzeko. Urrats antzekoak eman zituen, Frankismoaren aurkako inolako eraginik izan ez zuen, baino egungo aro konstituzionalean, ezkerren ordezkaritza, neurri haundi batetan, bereganatu duen alderdi sozialistak, hain zuzen ere.

1977.ko ekainaren hauteskundeetatik 1982.ko abuztuaren "Foruen Hobeagotze"ra doan tarteak, Nafarroako euskal nazionalistek zituzten helburu politikoak, maila instituzionalean bederen, deuseztatu egin zituen. Euskadiko lurraldeen batasuna ez zen gauzatu eta II. Errepublikako egoerarekin parekatuz, atzerapauso arras bistakoa dugu. Nafarroako eskuindarrek zein sektore ezkertiar batzuek orduan egin ez zutena, Nafar estatutua edo antzekoren zerbait, orain burutu dute, Foruen hobeagotzea dela medio. 1982.tik aurrera gorpuztu dute komunitate bakar bat, euskal proiektu nazionaletik kanpo dabilena, eta zenbaitentzat, bai UPNkoentzat, baita PSOEkoentzat, horren aurka dagoena. Honen ondorioz, nafarzalekeriaren ezaugarri guztiak indartzeaz gain, euskaldunek dituzten arlo kultural zein politikoak ezabatzen saiatzen dira.

Esparru abertzaleari dagokionez, Errepublikan suertaturiko fenomeno batzuk errepikatu izan ziren Trantsizioko lehenengo urteetan. Nafarroan alderdi abertzaleek bultzatu duten politikak, nahiz eta gainontzeko lurraldeetan kaleratzen ziren ardatz politikoeekin bat eginez, ñabardura eta bereiztasun zenbait zituen. HBren salbuespena ezik, Nazionalismoaren sektore guztiek, historikoek hala berriek, erabili dituzte koalizio sustengatzaile batzuk, berez zituzten esparru politikoak zabaltzeko edo indartzeko asmotan. 1977.ko hauteskundeetan, EAJ-k "Union Autonomista de Navarra" koalizioa bultzatu zuen bitartean, gainontzeko euskal lurraldeetan Euskadiko Ezkerra eratu zuten sektoreek, Nafarroa mailan, "Unión Navarra de Izquierdas" UNAI delakoa eratu zuten. Joera honek gaur egun arte iraun du, "Nacionalistas Vascos", Auzolan, edo Batzarre bezalako koalizioak lekuko ditugularik.

Herri Batasunari begiraturaz, gainontzeko lurraldeetan eraman duen politikarekin parekatu ezkerro, nabarmena izan da instituzioekiko jarrera desberdina eta azken urteotan bere egin-kizun politikoari txertatu ohi dion kutsu nafarzalea. Nazionalismoaren sektore guztiek goratu dituzte hainbat militante nafar beraien alderdietako goimailako arduretara. Nazionalismo historikoan, Carlos Garaikoetxea Euskadiko lehendakaritza arduratu zen, 1980.tik

1985. ra bitartean, Euzkadi Buru Batzarreko lehendakaria izan ondoren. HBren baitan, Floren Aoizen kasuan antzeko zerbait soma daiteke. Errepublikako urteetan EBBko goreneko ardura izan zuen bere herkide Jesus Doxandabaratx-i jarraituz, Tafallako gaztea koalizioaren bozeramaile eta buruzagi nabarmenetako bat dugu.

Manifestazio eta antzeko deialdiei so eginez, Nafarroarekiko arreta berezia izan da euskal nazionalismoaren aldetik. EAJ-k Iruñean burutu zuen Franko hil ondorengo lehen biltzar nazionala. Urte berean, nazionalismo erradikalaren sektore orok Arazurin amaitu zuten "Askatasunaren Ibilaldia". Ondorengo urteotan, eta batez ere, HB egituratu zenetik, Iruñea izan da, bizpahiru salbuespen ezik, Aberri Eguna ospatzeko korrante horren topalekua.

Nafarroarekiko begirunea, euskal nazionalismoaren garapenerako positibotzat jo dezakegun arren, ez da nahikoa izan, lurralde honek, Euskadiko proiektutik kanpo hartu duen dinamika geldiarazteko. Prozesu bikoitz eta osagarria bizi izan da azken urteotan. Euskal abertzaletasuna eta euskal nortasunaren defentsa elkarte eta erakunde nazionalistera mugatu den bitartean, jokabide hau duten alderdiek lortutako emaitzak, hauteskunderi begiraturaz, gero eta apalagoak izan dira.

1977.ean abiatu ziren hauteskunde lehian, Euskadiren aldeko jarrerak sustengatzen zuten alderdiek %44 lortu ba zuten ere, emaitza esanguratsu hau, deseginduz joan da hauteskunderi hauteskunde. 1979.ean, aro konstituzionaleko lehen parlamentu nafarra osatu zenean, Euskadiren alde eta aurkakoen arteko erlazioa 37-33ean zenbakotzen zuten batzuek, PSOE ren hautatuak aldekoen kopuruan sartuz. Hilabete batzuk beranduago, kalkulu hori sobera baikor zela, garbi gelditu zen. Jakina denez, Konstituzio eta Gernikako Estatutuak aldarrikatzen zuten bide legala, Nafarroa eta bertze lurralde euskaldunek, nahi izatekotan, komunitate bakar bat osatzeko, ez zen sekulan martxan jarri. Are eta okerrago, ordurarte bakarrik sektore eskuindarrek sustengatzen zuten nafarzailekeriaren ildora hurbildu ziren PSOE edo alderdi karlista bezalako talde politikoak.

Egoera hau dela medio, bertako Francis Fukuyamaren epigonoek, bukatutzat jo nahiko lukete, UPNko buruzagia den Gurreak, orain dela gutxi, deitu duen "la cosa vasca" Nafarroan. Baina mundu osoan barrena, saoilari japoniarrari gertatu zaion moduan, hemen ere, eguneroko errealitate tematiak ukatzen du "historiaren amaiera".

RESUMEN

Este artículo versa sobre la historia del Nacionalismo Vasco en Navarra a lo largo de tres etapas diferentes. La primera delimitada por la implantación del PNV y su desarrollo en las décadas de 1910-1930, sirve para acercarnos a sus primeros enclaves político-organizativos, institucionales y mediáticos. La parte central del estudio está constituida por los años de máxima implantación del nacionalismo histórico, el periodo republicano de 1931-36 y la notoria popularización de sus alternativas político-culturales. Por último, brevemente, se esbozan los parámetros de la política nacionalista durante el franquismo y final del mismo, caracterizados por la diversificación de alternativas y el recambio en la hegemonía política dentro de la corriente nacionalista.

LABURPENA

Artikulu honen bitartez, euskal nazionalismoak Nafarroan izan duen ibilbide historikoa jorratu dugu. Mugimendu honek izan dituen garapen aroak kontutan hartuz, lana hiru zatitan egituratu dugu. Lehenengoan, EAJ-k XX. mendeko hasieran izan zituen gune politiko-instituzionalak zein organizatiboen berri ematen da. Bigarrengoan, Errepublikako urtetako hazkunde esanguratsua isladatzeaz gain, epe horretan gauzatu ziren zenbait inizatiba eta prozesu aztertzen dugu. Bukatzeko frankismo bitartean eta erregimen honen amaieran, nazionalismoak bere baitan garatu duen aniztasun eta aldaketa politikoetara hurbiltzen saiatzen gara.

ABSTRACT

This paper deals with the history of Basque Nationalism in Navarre throughout three differentiated stages. The first one, delimited by the introduction of the PNV (Basque Nationalist Party) and its development in the 1910-1930's can be of some use to let us approach its first political-organizational and institutional enclaves. The central part of the study is constituted by those years when historic nationalism implants itself to the utmost –the republican period (1931-36)– and the notorious popularization of its political-cultural alternatives. Finally, the parameters of the nationalism during the franquism and the end of it are briefly outlined, being their main characteristic the diversification of alternatives and the change in political hegemony inside the nationalist current.